

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa bat sortzeko eta bere balorezko proposamena garatzeko funtsezko jarduera egokiak izatea oso garrantzitsua da. Horrela, merkatuan kokatzeko eta bezero potentzialak erakartzeko aukera gehiago izango ditu. Enpresaren egunerokotasuna aurrera eramateko hainbat berebiziko jarduera egin behar dira. Hori horrela, 3 arlotan sailka daitezke: produkzioa, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareak. Gure kasuan, enpresak arazoak konpontzeko jarduera izango du lehen planoan, bezeroen beharrei erantzuteko eta haien konfiantza gureganatzeko.

Gure balorezko proposamena garatzeko ezinbestekoa den osagai garrantzitsuenak produktuak garraiatzeko erabiliko dugun furgoneta da. Bertan, gure produktu ezberdin guztiak eramango ditugu, eta apal ezberdinetan egongo dira antolatuta. Hau izango ez bagenu, hasteko, ezingo genuke bezeroekin aurrez aurre hitz egin eta elkarrekin pertsonan komunikatu, herrietara iristeko zailtasunak izango genituzkeelako. Bestalde, produktuak herrietara eramateko ere behar dugu. Bezeroek behar dituzten produktu guztiak eramango ditugu bertan eta zerbitzu bat behar izanez gero, furgoneta berdinarekin bidez lagunduko diogu.